

Independentziaren alde biltzeko deia zabaldu du Herrien Ligak

Aberri Egun bateratua eta bakarra egitea proposatuko dute

Herrien Eskubide eta Askapenerako Nazioarteko Ligak (HEANL) dei egin die euskal herritarrei independentziaren aldeko plataforma batean batu daitezen. Beraien zeregina independentziaren alde jotzea ez dela azalduta, hiritarrei «subjektu aktibo bihurtu eta independentziaren garraxia» zabalduko dutenak izatea eskatu zien.

Z.ZAMAKOLA / BILBO

Jose Luis Alvarez 'Txillardegí', Arantxa Carbonell, Joseba Tobar Arbulu eta Iñigo Bilbao Herrien Ligako partaideak atzo Bilbon prentsaurrekoa egin zuten, eta baietsi zuten Nazioarteko Ligak autodeterminazioa bultzatzeko helburu bakarra duen arren, «autodeterminazioak zentzurik badu, burujabe izatea nahi badugu, herri independentea izateko dela».

Ildo horretatik, Joseba Arbuluk ziurtatu zuen «hamaikaxo udalerrik erakutsi» dutela bidea. «Hor dira, partidukeriaren gaintetik, independentzia aldarrikatu duten euskal agintariak. Hori piztu duten sua indartu behar delakoan gaude», baietsi zuen.

«Zentzu horretan —segitu zuten—, erresistentzia zibilerako bideak zabaldu behar direla uste dugu eta guzti horretarako Euskal Herriaren independentzia aldarrikatuko duen egitura gauzatzeko proposatuko diegu kolore eta klase guztietako euskotar eta abertzaleei».



Herrien Ligako partaideak, Txillardegí erdian, atzoko prentsaurrekoan.

Herrien Ligaren ordezkariak esan zuten ez dela «aski bere burua abertzale definitzea», eta hori gorpuztu egin behar dela eritzi zion. Horregatik independentziaren aldeko jarrera hedatzearen alde azaldu zen. Herriarrei berriz, «beren etorkizunaren subjektu bihurtzeko eskatu zien.

ABERRI EGUN BATERATUA Independentziaren alde batzeko prozesu horretan Herrien Eskubide eta Askapenerako Nazioarteko Ligak aurtan «Aberri Egun bateratu eta bakarra» egitea proposatuko diote Euskal Herri osoari.

«Era bateratua diogunean, ez gara soilik uste politikoa desberdinak dituzten abertzaleez ari; ari gara, batez ere, Euskal Herria zatikatzen duten mugak gaindituko dituen Aberri Egunaz, hau da, Iparraldeko, Nafarroako eta Euskal Autonomi Elkar-

teko abertzaleak batuko dituen egunaz», argitu zuen Tobar Arbuluk.

Azkenik, Herrien Ligako ordezkariak adierazi zuten «hainbat lagunekin» kontaktuan daudela, «mugimendu herritar eta zabal hori osa dadin».

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí' gogoratu zuen atzo bertan Europako Komunitateak Eslovenia eta Kroaziaren independentzia onartu zuela. Txillardegiren esanetan, onarpen horrek Yaltako finkaturiko mugak apurtu ditu, «orain arte mugiezina eta aldaezinak zirenak, alegia».

Alvarezek gogorarazi zuen Estatu espainiarra eta frantziarrak izan dutela Kroazia eta Esloveniaren onarpenaren aurkako jarrera gogorrena. «Euskaldunok —gaineratu zuen— ondotox dakigu zergatik izan den hori.

AABB: «Navajasen moduko fiskalekin poliziek ez dute defentsaren beharrik»

DONOSTIA

Amnistiaren Aldeko Batzordeek gogor gaitzetsi zuten Manuel Navajas Donostiako fiskalburuak 'posten aferan' izan duen jokabidea eta ziurtatu zuten «Manuel Navajas fiskalaren jokabidea bezalakoa dutenekin» Estatuko Segurtasun Indarrek (FSE) ez dutela «abokatu defentsoreen beharrik».

Fiskalak manifestaldi batean postaz tiro eginez bi gazte zauritza leporatzen dieten bost polizia absolbitzeko eskatu zion Epaimahaiari, berauen eskubideak «urratu» zirela argudiatuta.

«Harrigarria da fiskala bera izatea, ustez hiritarren interesei eraso egiten dietenak Estatuaren izenean zigortu behar dituenak, bost polizien absoltzioa eskatzen duena», adierazi zuten AABBek, prozesatuek prozesu honen barnean behin eta berriro errekonozimendu frogak egiteari uko egin diotela gogorarazi ondoren.

AABBen ustez, Navajas fiskalaren jokabidea azalpen bakarra izan dezake, «bere ardura handiena, une guztietan FSEkoen erantzunbetea bermatzea dela, edozein froga egonda ere», atzo igorritako oharraren bidez adierazi zuten.

Bost poliziek errekonozimendu errondetan parte hartzeari eta gertakizunak berregiteari uko egitea «justizia oztopatzeko jukutria argia» dela baietsi zuen erakunde honek. «Hain zuzen ere, gertakizunak argitzeko aurrerapausurik ez ematea bilatzen dute. Jokabide honek Fiskalaren laguntza jasotzea ulertezina eta onartezina da demokrazian», gaineratu zuten.

Halere, Amnistiaren Aldeko Batzordeak ziurtatu zuten Navajas fiskalaren jarrera «Gobernu espainiarrarenarekin guztiz bat» datorrela, «errepresioaren ihar-dunean» ezin legehauste eginda ere FSEkoak babesten dituztela argudiatuta.

Iribarren zauritu zuteneko gertaerak argitzea eskatu du IUk Madrilen

IRUNEA

Pasa den hilabeteko 14 eta 15ean Iruñean gertatutako istilu larriari buruzko galdera aurkeztu du IU-Ezker Batuak Diputatuen Kongresuan. Barne ministroari galdetzen diote Mikel Iribarren eta beste bi gazte zauritu zuten egunean pasatu zena argitzeko, Gobernu Ordezkaritzak eta beste lekuko batzuk eta zaurituen senideak esan dutena desberdina baita. Poliziaren jokabide ilun hau argitu behar dela jendearen aurrean diote, horrelako ekintzak ez

ikertzeak hurrengoetarako sinesgarritasun falta sortuko lukeelako.

Zehazki, bost galdera egin dizkiote, gertakizunen ikerketa zabaldu den edo ez, zer emaitzak ditu Barne Ministeritzak, zer objektuk eragin zituzten zauriak, Poliziaren jokabidea nolako iruditu zitzaion Gobernuari, eta zeinek agindu zuen polizi ekintza hain zuzen.

Galdera hauek pasa den hilabeteko 26an aurkeztu nahi zituzten, baina arazoak zirela eta, aste honetan egin da.

EK-k Kroazia eta Eslovenia onartzeagatik pozik da HB

BILBO

HBk «poztasuna» erakutsi zuen atzo Europako Komunitateak Kroazia eta Eslovenia onartu dituelako, baina era berean «minuta» agertu zen «erabaki politikoa hau aspaldian erantzunezina zen errealitatearen notari agiria delako».

Izan ere, HBk atzo igorritako oharrean salatu zuenez, «berandu onartzea Kroazian guda latza ahalbidetu duen beste elementuetako bat izan baita, eta herri balkaniarren arteko etorkizuneko harremanei zalantza larriak ezarri dizkio».

HBk baietsi zuen elkarpendentzia gero eta handiagoa den munduan, Europako Ekialdeko eta Erdialdeko nazionalismoen hazkuntzak agerian jartzen duela «nazio gainteko batasun proiektuek herri bakoitzaren nortasuna eta subiranotasuna onartuta bai-

no» ez daukatela etorkizunik, «herri batzuek besteak irensten ihardun barik».

Europako Komunitateak estatu-nazio berriak onartzeko jarri dituen oztupoak «Mendebaldean ere arazo nazionalak egotearekin» azal daitekeela eritzi zion alderdi honek. «Bihar bertan (gaurko egunagatik), Komunitateko onarpenaren ondoren, Espainiaren, Frantziaren eta Britainia Handiaren Erromako enbaxaden aurrean kontzentrazioak egingo dira, euskal, irlandar eta korsikar herrien autodeterminazio eskubidearen alde.

«Gure eremu geopolitikoak gainditzeke daukan ikasgaia atzean uztean dago hiru gatazka luze horiek amaitzeko gakoak, eta beste posible batzuk areagotzea ekiditeko eta etorkizunerako egonkortasun politikoa sendoa eraikitzeke oinarriak finatzeko», amaitu zuen HBko oharrak.

Irurtzun-Andoain autobidea

Paktuak baztertu egin ditu Lurraldeak egindako proposamen desberdinak

DONOSTIA

Leitzarango autobidearen auziari konponbidea emateko Lurralde koordinakundea eta Ajuria Eneako Paktuko alderdiak egiten ari diren negoziaketetan, Lurraldeak aurkeztutako sei proposamen eta Arartekoak eskusartzeko aukera baztertu egin dira. Lurralde prest legoke auziari irtenbidea emateko metodoa Arartekoa bezalako instituzio batek onetsia izatea, atzo 'Egin' egunkariak jakitera eman zuenez.

Juan San Martin Arartekoaren gainbegiraketa posibleztat jotzen duen Lurraldearen proposamenak partehartzerako nukleo aktibo bat osatzea esan nahiko luke. Nukleo hori Donostiako Soziologia Institutuaren aholkuepean legoke. Proposamen hau atzera bota zuten Paktuko

alderdiek, 'Eginek' aipatzen duenez, eta Arartekoaren taldetik berriz zera izan dela erantzuna: «Arartekoa arazoak konpontzeko prest dago, horiek dagozkien bidetik eramaten badira».

Atzera bota dira baita ere, iturri berberen arabera, Lurraldeak autobidearen trazaketaren inguruan egin dituen proposamen desberdinak. Trazaketak hiru alternatiba zehatz egin ditu, Leitzarango parke natural bihurtzea ahalbideratzen dutenak eta Tolosa komunikabidegune izatea. Laugarren batek, trazaketa batean ados jarri aurretik zer baldintza bete beharko liriteen aurretik zehaztea proposatzen du. Autobideko lanak fasez egiteko aukera ere ikusi zuen Lurraldeak, kontsentsua duten zatiak eginez lehenik.

Ajuria Eneako Paktuko A-2 «makilatua» baino ez dela izan uste

du Lurraldeak 'Egin' egunkariak atzo jaso zuenez, eta mobilizazioetan pentsatzen ari direla kontsentsuaren beharra berriro ere kaleratzeko.

HB: «EAJ PSOE-REN ESKU» Ajuria Eneako Paktua autobidearen auzian izaten ari den jarrerak

ez dela «normalizazio politikorako paktua» erakusten du Jon Idigorasek atzo esan zuenez. «da Lurralde koordinakundek erakutsitako jarrera irekia bazterrerak eta berriro ere konfrontazioaren bidea hartu dute» azaldu zuen prentsa agiria batean HBko eledunak.

EAJri buruz berriz, «berak izan duen porrota izkatuta» nahi duela uste du Idigorasek, «gainontzeko bitartekarien esku konpromezua-ren hausturaren erantzunkizuna leporatuz».